

Duela 37 milioi urteko bi sasizaldi-espezie Araban



Gaur egun ekido-espezie gutxi batzuk badaude ere —zaldi, asto eta zebra, esaterako—, duela 56-33,9 milioi urte askoz ere aniztasun handiagoa zegoen. Esaterako, Arabako paisaia subtropikalean Eozeno bukaeran bizi ziren bi paleoterido edo sasizaldi-espezie berri deskribatu dituzte EHUko Ornodunen Paleontologia taldeko ikertzaileek, Zanbrana aztarnategian: *Leptolophus cuestai* eta *Leptolophus franzeni*. Biak, duela 37 milioi urte ingurukoak.

Garai hartan, Europa artxipelago bat zen, irla askoz osatutakoa. Irla bakoitzean fauna endemikoa garatu zen, noizean behin irlen arteko faunatrukeak izaten baziren ere. Zanbranan, esaterako, sasizaldi-espezie endemiko asko aurkitu dira. Baina horiek guztiak duela 33 milioi urte izandako krisi klimatiko-biologikoaren ondorioz suntsitu ziren, eta orain ezagutzen ditugun zaldiak duela 23-5 milioi urte bitartean Europara Ipar Ameriketatik iritsitako fauna immigrantea dira. Zaldi itxurako Europako fauna autoktono bakarra, beraz, paleoteridoak edo sasizaldiak izan ziren.

“Egungo ekidoek behatz bakarra dute —dio Leire Perales Gogenola ikertzaileak—, baina garai hartako sasizaldiek hiru behatz zituzten; ez zeuden bereziki moldatuak korrika egiteko. Eta tamainan desberdintasun handiak zeuden: espezie berrie-

tako batek 30 kg inguru pisatzen zituen, eta, besteak, 150 kg”.

Eozenoaren hasieran, temperatura eta hezetasun handia zegoen. Planetako latitude gehienetan, ekosistema tropikal edo subtropikalak hedatu ziren. “Zanbrana lakuan eta inguruan krokodiloak, dortokak, primateak eta marsupial txikiak aurkitu dira”, zehaztu du Ainara Badiola ikertzaileak. “Eozenoaren bukaeran, Europako ekosistema tropikal hori hondatzen hasi zen, eta paisaiaren itxura aldatzen joan zen; baso itxiak gutxitu, eta gunee irekiak azaldu ziren”.

Ikertzaileek ikusi dute bi sasizaldi-espezie berriak Eozenoaren bukaerakoak zirela, eta eremu irekiagoetako landaredian bazkatzeko moduko haginak zituztela. “Atzeko haginak oso altuak ziren, Miozenoan Europara migratutako ekidoek zituztenen antzekoak; horrek adierazten du Eozenoaren bukaeran jada haginak higitzen zituen landaredia jaten zutela. Gune irekietako lurrian zegoen hautsa landaredian pausatuko zen, eta horrek eragingo zuen haginak higitzea”, argitu du Peralesek. [Journal of Vertebrate Paleontology aldizkarian eman dute](#) bi sasizaldi-espezieen berri. Zanbrana aztarnategia 1998tik ari dira ikertzen EHUko paleontologoak, eta material ugari dute oraindik aztertzeko zain. ●